

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**189/2019 Foru Agindua, uztailaren 24koa. Honen bidez hasierako onarpena ematen zaio honako honen instalazioa interes publikokotzat jotzeko espedienteari: sakelako telefonoen deien banagunea Komunioiko 35-7-958 katastro erreferentziako lurzatian, Lantarongo udalerriko lurzoru urbanizaezinean, Telefónica Móviles España, SAK sustatuta**

Telefónica Móviles España, SAK obra lizentzia eskatu dio Lantarongo Udalari Komunioiko 35-7-958 katastro erreferentziako lurzatian sakelako telefonoen deien banagunean instalatzeko. Udalak espediente bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 28.5.a) artikuluan xedatzen duena betetzeko.

Udal arkitektoak 2019ko apirilaren 5ean egindako txostenean adierazten du lurzati hori lurzoru urbanizaezinean dagoela udalerriko indarreko arau subsidiarioen arabera: 68. babes arkeologikoko eremua, "Alto de Santiglori herrixka". Espediente aztertu ondoren, 2019ko apirilaren 16an errekerimendua bidali zitzaion Lantarongo Udalari, instalazioaren proiektu teknikoa aurkez zezan, eta horrekin batera eskaerarekin lotutako hainbat agiri ere bai, eta adierazi zitzaion ebazpena emateko epealdia etenda zegoela eta, nolana ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 68. artikuluan ezartzen duena aplikatuko dela.

Lantarongo Udalak errekerimendu horri erantzun zion (idazkia 2019ko uztailaren 4an jaso zen Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean), eta udal arkitektoak 2019ko ekainaren 25ean egindako hirigintzako txostena bidali zuen. Txosten horretan azaltzen da Udalak obra lizentzia eman aurretik Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren aldeko txostena behar dela, lurzatian babes arkeologikoko eremuan dago eta; gainera, eskaera aztertzen da Araba Erdialdeko LPPko araudiarekin alderatuta, eta ondorioztatzen da ezen, lurralde plangintzako arauak kontuan hartuz, ez dagoela eragozpenik dei banagunea instalatzeko Telefónica Móvilesek proposatu duen tokian.

Txosten horrekin batera Udalak honako hauek aurkeztu zituen: Telefónica Móviles España, S. A.k eskatutako obra lizentziaren inguruko dokumentazioa, dei banagunearen proiektuaren CDa, eta Museo eta Arkeologia Zerbitzuak 2019ko maiatzaren 29an karga arkeologikoez egindako txostena.

Espedienteari atxiki zaio sakelako telefonoen deien banagunea ezartzeko proiektu tekniko ikusonetsia: 0100514 Zubillaga COC 201806002071. Udal eskatzaileak aurkeztutako informazioa eta proiektuko kokapen planoak aztertuta, behar bezala egiaztatu da espedientearen akats baten ondorioz agertzen dela Zubillaga, banagunea ezarri nahi den lurzati Komunioiko kontzejuan baitago, haren ondoan (udalerrri berean daude biak).

Proiektuaren deskripzio memorian adierazten da PEBA edo Banda Zabala Hedatzeko Programaren barruan dagoela, eta horren helburua dela abiadura handiko eta oso handiko banda zabaleko zerbitzuak gaur egun estaldurarik ez duten eta, aurreikus daitekeenez, hurrengo urteetan ere izango ez duten eremuei emateko gauza diren komunikazio elektronikoko sareen estalduraren hedapena azkartzea. Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 143/2016 Erabakiaren bidez AFaren 2015-2019 legealdirako Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan honako ildo estrategiko hau dago: "7.4.2 Araba konektaturik programa abiaraztea. Estaldura unibertuala Arabako landa ingurunean".

## OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena dauka aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz.

2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezartzen duen araubideari jarraituz, lurzoru urbanizaezinean "ezin da beste jardunik gauzatu aplikatzekoa den legedia sektorialak edo lurralde planeamenduak interes publikokotzat jotako zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak baizik, baldin eta, gainera, dagokion foru diputatuaren ebazpenaren bidez, interes publikokotzat jotzen badira, alde aurretik hogeie egunez jendaurrean edukitzeko izapidea beteta"

Espedienteko dokumentazioa eta Lantarongo udalerriko arau subsidiarioetako araudian eta planoak kontuan hartuta, Komunioiko 7. poligonoko 958. lurzatia, sakelako telefonoen deien banagunea ezarri nahi dena, 2. eremuan dago: "Substratu hauskorrean babestu beharreko nekazaritza eta abeltzaintza eremua". Udalerriko arauetako 201. artikuluko 2. zenbakian ("Baimendutako erabilera eta jardueren zerrenda") ezartzen denaren arabera, eremu horretan baimendutako eraikuntzako erabilera eta jardueren artean onura publikokoak eta gizarte interesekoak diren eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak daude, baldintza batzuk betez gero; hona lehena: "Landa ingurunean jarri behar badira, hain zuzen, bertan egingo diren jarduerak, zientzia, topografia, geografia, irakaskuntza edo beste arlo bateko arazoak direla-eta, aukeraturako kokalekuari lotuta egon behar dutelako nahitaez, ..."

Arau subsidiarioetako 208. artikulua (X. titulua, "Historia, arkitektura eta arkeologia ondarea eta naturaguneak babesteko arauak") 2. zenbakian Euskal Autonomia Erkidegoak presuntzio arkeologikokoak deklaraturako eremuei aplikatzen zaien araudia ezartzen du. Hona zer dioen: "(...) arkeologia hondakinak egon daitezkeela uste den zonei ere babes emateko beharra, nahiz eta horiei monumentu izendapena emateko espedientea oraindik bideratu ezin izan, benetako garrantziaren edo ezaugarrien berririk ez egoteagatik oraindik arkeologia azterlana egin ez delako (...).

Hori dela eta, aipaturako legearen 49. artikulua (7/1990 Legea) eta Balizko Arkeologia Zonak zehazteko araubidea finkatzeari dagokionez Kultura Ondarearen Lege horren garapen arautzailea dakarren urriaren 8ko 234/1996 Dekretuak, behartu egiten dituzte ustez hondakin arkeologikoak egon daitezkeen zona horietan obrak egin nahi dituzten sustatzaileak eta jabeak balio arkeologikoari buruzko azterlana aurkeztera eta horrek obra proiektuan eduki dezakeen eragina aztertzea. Ondoren, Foru Aldundiaren eskumenekoa izango da obra baimena eman aurretiko baimena emate aldera arkeologia proiektua beharrezkoa den edo ez finkatuko duena"

7/1990 Legea aipatzen den lekuan gaur egun ulertu behar da Euskal kultur ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legeko 65. artikulua aipatzen dela (EHAA, 93. zenbakia, maiatzaren 20koa), hura indargabetzen du eta.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 1997ko maiatzaren 26ko ebazpenean (EHAA, 128. zenbakia, uztailaren 7koa) ezartzen dena aplikatuta, Lantarongo udalerriko arau subsidiarioetako 210. artikuluko presuntzio arkeologikokoak deklaraturako eremuen artean Alto de Santigliori herririka agertzen da (68. zenbakia), eta Telefónica Móvilesen proiektuaren arabera bertan ezarri nahi da dei banagunea.

Espedienteari Museo eta Arkeologia Zerbitzuak egindako txostena atxiki zaio (Lantarongo Udalarri jakinarazi zaio); txostenean honako hau ezartzen da: "aldez aurretik balorazio arkeologikoa egin behar da, aztarna arkeologikorik badagoen jakiteko, zundaketa arkeologiko mekanikoen edo eskuzkoen bidez"

Aztertzen ari garen kasu honetan, hasierako onarpena izapide egintza bat da, hots, prozedura bultzatzen duena eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen egintza bat baizik ez, eta ez du alde aurretik eragiten, inondik inora, behin betiko onarpenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dauzkadan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onarpena ematea honako honen instalazioa interes publikokotzat jotzeko espedienteari: sakelako telefonoen deien banagunea Komunioiko 35-7-958 katastro erreferentziako lurzatian, Telefónica Móviles España, SAK sustatuta eta Lantarongo Udalak izapidetuta.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea hogei egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Aldi horretan nahi duen orok nahi dituen alegazio guztiak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 24a

*Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*